

NAZARET-EKO MARIA BIBLIAREN ARABERA

Mariaren garaipenak egin eta haren grazi bereziak handiesteko ohitura izan dugu luzaroan. Mariari buruz hitz egitea haren laudoriak aipatzea zen. Guregandik bereizten zuena, gure gainetik, goi-goian jartzen zuena zen miresgarriena: JAINKOAREN AMA izatea zan batez ere eta ia soilik Mariagan miresgarriena. AMA MIRESGARRIA esamoldeaz adierazten da ondoren sentimendu hori.

Teresatxo doneak, «miresgartia baiño areago maitagarria» zela Maria esan ohi zuen. Nazareten bizi izan zen bezala aurkeztu beharko litzatekeela judutar fededuna, apala, langilea, behartsua, hainbeste nahigabe eta zailtasun jasan behar izan zituena. Guregandik hurbil-hurbilekoa. Azken aldi honetan Elizak Mariaren alderdi hori azpimarratu ohi du bestea ukatu gabe. Nazaret-eko neskatilaren grazi bereziak, batez ere Jainkoaren Ama izatetik datozenak ahaztu gabe, baina gure antzekoa, guregandik hurbilago egiten duena aintzat hartzen da bereziki, Maria gure Ama, arreba era eredia dugu.

Honela ikustea ez da gauza berria Elizaren historian. Ebanjelioek horrelaxe agertzen digute. Maria, Ebanjelioen arabera, sinestun apala eta Jainkoaren asmoa bete-betean onartzen duena da. Jainkoaren mezua nola onartu eta haren deia nola erantzun behar zaion irakasteko gidaririk egokiena. Nor bere bokazioa onartu eta jainkoaren salbazio egintzan beraren esanera eta berarekin lankide izateko eredurik bikainena. Gaur egun sarri gogoratu ohi dugu Mariaren BAIETZA. Horixe da fededunaren benetako jarrera; sorkari guztion jokaera. Jainkoak lankidetzat nahi gaitu bere plangintzan. Eta Jainkoa eta Hark gurekiko duen maitasuna ezagutzen duenarentzat ezinbesteko da buru eta bihotz bete-betean Jaunaren esaneko jartzea.

Bibliak sinismenaren eredu bi agertzen dizkigu bata Itun zaharrean eta bestea Itun Berrian. Lehenengoa Abraham dugu, Jainkoa onartu, berarengan uste osoa jarri eta prest-prest dago beren esanei men egiteko; bere seme ba-

karra aldare gainean opari gisa hiltzeko ere bai, horrela Jainko beraren agintzariak, itxura batetan, hondatu egiten zirela jakin arren. Jainkoak bere asmoak onez burutzeko badituela guk ez dakizkigun baliabideak, uste du Abraham-ek. Itsu-itsuan jarri behar dugu ustea beragan. Itun Berrian Maria dugu sinismenaren eta mentasun honen eredu.

Maria eta beraren bokazioa

Jainkoak Maria izaki berezia, bikaina sortu zuen. Harengan jarritako asmoak bete zitezten beharrezko zituen bitarteko guztiez hornitu zuen. Ez zuen ederresteko edo ikuskizun bikain bat aurrean izateko hain grazi bereziz apaindu; Jainkoaren plana betetzeko horrelaxe izatea behar-beharrezkoa zelako baizik. Guztia bere helburuetara zuzendurik dago; guztiak du bere zer-gatia. Apaingarri hutsik ez dago harengan. Jesusen ama, gure Ama eta eredu izateko, bideraturik dago guztia. Espiritu Santuaren eraginez ondo funtzionatuko duten makinaren piezak bezala dira haren doaiak.

Orain gauzek hutsik ez ematea zaigu gogoko; bakoitzak berea ongi zertzea. Maria ziur-ziurra da; ez du huts ematen sekula. Ebangelariak hori azpimarratzea dute Mariari buruz hitz egiten digutenean: Jainkoaren asmoci beti eta bete-betean erantzun izana.

Sorkunde garbia

Maria bere izatearen lehen ume bertatik pekatutik garbi gordea izan zen. Giza-historian ez da horrelakorik beste inoiz gertatu. Pribilegio honek Maria beste gizaki guztiongandik bereizten du, baina ez urrundu. Bera ere gizakia da; pekatu eta zama guztietatik aske geratzeko irrikaz dagoen giza-familia honen artekoa da bera ere.

Maria giza-familia honen pekatuetatik askatua izan da, zeharo askatua. Beste guztiok, ordea, geroko askapenaren zain gaude; hala ere gure askapena ez da bete-betea izango gizaki pekatariaren lortzak beti ere guregan iraungo bait dute. Mariaren askapena lehenengo unetik eta erabatekoa izan zen. Haren izatean pekatuaren izpitxorik ere ez da izan sekula. Kristoren salbazioa aldeztetik eta bete-betean ezarri zitzaion Mariaren askapen-punturaino heltzea guretzat ezinezkoa da, baina, Kristoren opariaren salbazio-indarra erakusten digu. Maria horrela askatua badu, gu ere askatuko gaituela itxaron genezake. Maria pekatu guztitik garbi gordetzeko Jainkoak dohainik egindako grazia da. Giza-familia osotik hura aukeratu zuen, hala nahi zuelako besterik gabe. Baina hura hautatzea beste guztion onerako izan da; beraz, itxaropen-iturri dugu hori: Jainkoak bere amatzat aparte hartu zuen harengan harrigarriak egin baditu, besteongan ere egingo ditu, mugatuagoak badira ere.

Jesusen lehen salbazio-egintza harrigarria eta itzaropentsua da.

Jesusen Jaiotzaren iragarpena Mariari (Lk. 1, 26-38)

Mariaren bizitzako gertakari hau guztietarik ezagunena da. Lukas ebanjelariak zertzelada ugariz agertzen digu. Berarentzat oso garrantzitsua da hori, Jesusen eta honen amaren izaera ezagutzeko ezin hobeto dator eta. Orain, iragarpen honek Mariarentzat zer esan nahi duen aztertuko dugu.

Jainkoa Mariari bere bokazioa, zertarako nahi zuen, agertzen dion unea da. Jainkoak ederretsi eta hautatu egin duela adierazten dio Aingeruak. Beraz, ez duela zertan beldurturik. Israelgo historian zehar Jainkoak, herrian salbazio-egintzan honetan edo horretan laguntzeko zenbait pertsona aukeratu zituen, orain Mariak aukeratzen du bere obra nagusia aurrera eramateko: bere Semearen gizakundea. Jainkoak bere mezulariak ezpain garbiz eta Espiritu Santua izuriz prestatzen zituen. Maria garbi-garbia egin du, jatorritik pekatutik gabea. Orain, Nazaret-eko neskatila hark, ezagupen osoz baietza eman eta bere esanetara jarri dadila nahi luke. Dirudienez, israeldar guztiek bezala Maria ere herriaren askapena David-en jatorritik sortutako Erregoren baten eskutik itzaroten zuen. Jainkoak huraxe aukeratu du bere ama izan dadin. Seme hau Espiritu Santuaren eraginez sortuko da. Jainkoak zuenki esku hartuko du, gizakia den aldetik ere Jainkoaren semea dela argi gera dadin. Mariak giza-familiari dagokionez eta Espiritu Santuak jainkotasunari dagokionez osotzen dute obra mirezgarri hau. Inongo gizonek ez du parterik izango. Jainkoaren Semearen gizakundea mirarizko gertakaria da, giza-historian sartzen den gizaki oso-oso, baina mirezgarrikoa da eta. Jesus bere jainko-izatean ezezki bere giza-izatean ere Jainkoaren semea da Mariaren bitartez.

Mariak onartu egiten du mezulariaren esana. Ez du inolako zalantzarik. Zakarias-ek egin zuenez, ez dio inolako frogarik eskatzen sinesteko. Mariak bete-betean eta baldintzarik gabe erantzuten du. Jainkoaren esku ustean du bere burua, hark bere asmoak aurrera eraman ditzan. Horixe esan nahi du eman duen BAIETZAK. Gazte honen zerik ederrena bere egoera berria hain xaloki eta apalki onartzean datza. Ez du bere burua besteengandik urrun ikusten. Ingurukoei jaramonik egin gabe ez da bere baitan kiribiltzen harrokeriaz bere burua handietxirik lehen bezain maitagarri, zerbitzari leial izango da gero ere.

Harrigarria da Elisabeth bere senidegana joateko hartzen duen erabakia. Hau ere seindun zegoen. Eta Mariak bere laguntza eskaini nahi dio, beragan ezer gertatu ez bailitzan. Elisabeth-ek goitiko inspirazioz misterio horren berri jakiten du lehengusin gazteari «nire Jaunaren ama» izena emanez

agurtzen du, honen bisitak eman dion poza adieraziz. *Zorioneko* deitzen du «sinestu duelako». Jainkoak, bere apaltasun eta handitasunez, bera bezalako gazte pobre eta xumea hautatzeko gertu dagocia pentsatu bait du. Honela, giza-erizpidez barik, Jainkoaren jokaera ulertzen duenaren fede harrigarri ari dela erakusten du.

Mariaren mentasuna ez datza zerbitzuan soilik, Jainkoaren hautatua izateaz ohoretsu ikus zezakeen bere burua. Nor ez zen egongo ba prest horretarako? Haren handitasuna honetan datza: Jainkoa guretzat ezagutezina, beraren asmoak misteriotsuak direla pentsatzean eta bitarteko xume eta apalengana jotzen duela euren izaera apal eta xume horretatik atera gabe. Itun zaharrean Jainkoa jende apalarengana jaisten zela esaten zaigu, baina gero jende apal horiek printze izatera aldatzen dituela. Baina Mariak bere egitekoa bete-betean onartzen du, bere xumetasun eta mentasunetik irten gabe. Horrela ere, Jainkoak harrigarriak egingo ditu haregan eta haren bidetz; horregatik belaunaldi guztiek «zoriontsu» dela aldarrikatuko dute.

Fedeak, apaltasunak, mentasun eta zerbitsuak, gizakiaren zerbitzurako eta ez zerbitua izatera etorri zenaren ama ohoretsua egingo dute. Hasiararik pekatutik garbi gordea izan bazen ere, orain birtute hautaz apaindurik, Jainkoaren semeari berarengan leku egiten saiatuko da. Horrelako gai aproposaz hezur-mamituko da Nazaret-eko Jesusen gorputza. Gorputz aldetik zer kide-tasun ote zuen Jesusck Mariarekin? Jesusen izaerako zenbait kualitate haren amarengandik odolez jasoak dirudite.

Maria bere bokazioa apaltasunez, gogotsu eta maitasunez onartzearen eredu bikaina dugu. Birjintasunez bizi izan zen beti, bere semearen zerbitzurako bere burua oso-osoan emanik bizi behar bait zuen. Ardura horrek haren bizitza erabat betetzen zuen. Beste seme-alaba batzutan pentsatzea, Jainkoaren seme gizon eginaren ama izateko bokazioari uko egitea litzateke, eskaintza osoa eskatzen bait zuen honek.

Belen-en (Lk. 2, 1-20)

Halabeharrak eraginik, Mariak Belen-era joan behar izan zuen bizitzera. Augusto enperadoreak bere inperio handiko gizaki guztiei norbere jatorrizko lekuan herritartzea agindu zien. Joseren jatorrizko herria Belen zen, eta bertan jaioko zen, agian, Ejiptotik itzultzerakoan egoitza han jartzekotan ari zela diosku S. Mateok eta (Mat. 2, 22). Aita bezain ankerra zen Herodes-en seme Arkelao-k agintzen zuela han jakiteak eraman zuen bizitokitzat Nazaret hautatzera.

Mariak bide luze neketsua egin behar izan zuen Nazaret-etik Belen-era. Hantxe jaio zen Jesus. Zertzeladak dira kasu honetan zerikusi handikoak:

Jose eta Mariak, behartsurik gehienek egin ohi zutenek, koba batetan aurkitu behar izan zuten gordelekua. Hantxe sortuko zen mundura Jainkoaren seme gizon egina.

Aingeruak iragarritakoa gogoan hartuz gero, antzeman genezake Mariak zer itxaropen zuen jaiotza honetan: «Ez beldurtu, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Hara: haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ezarriko diozu izen. Haundia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko dute eta bere aita Daviden errege-aulkia emango dio Jainko Jaunak. Israel herriko errege izango da betiko, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». (Lk. 1, 30-33).

Israel herriak harropuzkeriaz ulertzen zituen hitz hauek. Mesias botere handiz horniturik etorriko zela uste zuen. Herriak berehala onartuko zuen eta zeharo nagusituko zen.

Mariak ere, Belenen erakutsi zuenez, uste berbera zuen. Ez zuen ongi ulertzen halako bakardadean aurkitu behar izana. Ez zuen ulertzen zergatik Jainkoak ez zien iragartzen gertakari hori herriko agintari eta jende botoretuari. Aingeruak artzain behartsuetariko batzuri iragartzen die soilik albiste zoriontsua. Artzainei entzunik, zur eta lur gertatzen ziren guztiak eta hauen artean Maria bera ere bai. Ebangelariak, berriz, zera gaineratzen du: «Mariak gertakari guztiok gogoan hartzen zituen, bere barnean hausnartzuz». Mariak uste zuenez ez zirela gauzak gertatu esan nahi du honek. Jainkoaren asmoak ez datoz bat gure asmoekin, ez eta Mariarenekin ere. Horregatik bere barnean gogoetak eginik, Jainkoaren bideak guk uste ez ditugunak, misterioz beteak direla ateratzen du. Horrela, pixkanaka-pixkanaka Jainkoaren jokiera hobeto ulertu ahal izango du. Horixe da haren gogoeten ondorioa.

Hemen Mariaren sinemesna bere distira osoan ageri zaigu. Jainkoaren asmoetara egokitzen du bere burua. Gertakariak uste gabekoak dira, baina Jainkoak bere bideak ditu. Fedea Jainkoagan eta beronen agintzarrietan sinestea da. Jaunaren jokiera guretzat ulertezina izan arren, ilunpean eta ulertzen ez ditugun bideetatik bagaramatza ere, Jainkoagan uste osoa izatea, hor datza fedearen balioa. Mariaren handitasuna, hain zuzen ere, horixe da: Konfidantza itsua eta finkoa Jainkoagan, ilunpean ezer ulertzen ez zuela egon arren. Beste norbaitzuk, ordea, Mesias pobretasunean sortzea ezin sinetsirik, etsipenean erori ziren geroago. Maria ez Mariak, Jainkoagan sinestu eta buru eta bihotz eskaini zen haren esanera. Materialki behartsu izatea baino Jainkoak pobretasun horretatik bete ditzakeela bere asmoak sinestea, hori da Maria aintzagarri egiten duena; hor datza haren fedearen balioa. Aingeruak lehen-lehenik adierazi izan balizkio gauza guztiak, zergatik, nola eta abar, ziur-ziur eta behaztoporik gabe ibiltzeko aukera izango zukeen. Baina Jainkoaren bo-

rondatea besterik da: ilunpean bada ere, beragan uste ona jarririk aurrera jo dezala. Horixe da arimaren «gau itsua», eta ilune horretatik bere ama ere ez zuen babestu nahi izan. Teresatxo Doneak dioenez, fedearen ilunpe horretan Jaunaren bila eta bila ari den arima zintzoaren eredu izan behar duelako Mariak. Horrela izan zen Mariaren bizitza mundu honetan.

Jesus tenpluan aurkeztua (Lk. 2, 22-38)

Gertakari honetan ere Jainkoaren jokaera nolakoa izan ohi den erakusten zaigu. Tenpluko apaizek ez zuten Jesus ezagutu. Itxaropenez bizi zen aguretxo behartsu eta jainkotiar batek ezagutzen du. Fede bizidun behar-tsuek ezagut zezaketen soilik haur haren baitan ezkutatzen zen Mesias benetakoa. Belen-en artzainek; Jerusalem-en Simeon eta Anak. Hauek dira Jainkoaren solaskideak eta Berri Onaren mezulariak. Simon-ek jakitun jarri zuen Maria Jesusek ez zuela herria zeharo bereganatuko; ez zala guztiz onartua izango, alegia. Israeldar guztientzat edo erorbide edo altxabide izateko ezarria zegoela. Beraren inguruan zatiketa sortuko zela: Batzuk, (gutxiengoak) onartuko zutela, baina gehiengoak uko egingo ziola. Harropuzkeria eta garraipen errazik lortu ez bazuen, anak ere semearen nahigabe eta porrotaldietan esku hartu beharko zuen.

Pixkanaka-pixkanaka Mariaren ideiak Jainkoaren asmoetara egokituz zihozela nabari da. Beraz, herriaren baitan ari ziren Mesias garailearen uste okerrak alde batera utzi beharko zituen.

Jainkoak bide sail eta korapilotsu horretatik joko duela onartzea oso neketsua da, baina hortxe dago balioa hortxik lor genezake fedearen heldutasuna. Maria dugu horretan ere eredu. Bera pekatu gabea izan zen, baina fededun guztion bide latz eta ilunetik ibili behar izan zuen hark ere.

Jesus Haurra tenpluko doktoreen artean (Lk. 2, 41-52)

Jesus haurra, esanekoa eta men-mena zenez, Jose eta Mariari baimena eskatzen ohiturik zegoen edozertarako. Oraingoan, ordea, haiei ezer adierazi gabe, berak berataraz hartzen du erabakia. Guraso gaxoek nahigabezko egunak iragan behar izan zituzten. Azkenez tenpluan aurkitu zuten haurra doktoreekin hizketan. Gaztetxo azkar eta buru argikoak erlijioari buruzko galderak egin eta erantzunak ematen zizkien lege-irakasle haiei. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden haren erantzunen trebetasunaz.

Maria harriturik geratu zen Jesusen portaeraz. Ez ote zen ohartzen gurasoei eman zion nahigabeaz? Gaztetxoak ez du bere burua errudun aitortzen. Berak hartu beharreko erabakia zen eta gurasoek pentsa zezaketen horrenbesterik. Zeruko Aita da hark egin behar duen obraren gidari eta bero-

nen esanetara egon behar du lurreko gurasoen esanetara baino arcago. Plangintza honen konturik inori eman beharrik ez du. Ez du inori aholkurik eskatu beharrik. «Gurasoek ez zuten ulertu esan nahi ziena»- diosku ebangelariak.

Gertari honetan Aitak jarritako eginkizuna betetzen agertzen zaigu Jesus. Horretan ez du zertan sarturik inork; ez eta haren guraso eta haren portatzen arduradun zirenak ere. Mariak bere ama-eskubideei uko egiten die-la dirudi; une honetan behintzat ez du bere semearengan aginpiderik. Beronen bidetan aurrera egin dezan laga egin behar. Beste bat dago benetako arduradun dena eta haren esanera egon behar du Jesusen Zeruko Aita. Guzti honek erakusten digunez, Jesus misterio bat da Maria eta Joserentzat. Elkarrekin bizi izanez, ordura arte ez zuten ezer berezirik nabaren harengan. Zintzotasuna bai, baina ez miraririk, ez eta beste gauza harrigarriak ere. Haur ona, maitagarria, adeitsua, bizia, leiala, esanekoa. Orain zerbait misteriosua ikusten hasten dira. Nazaret-era itzuli eta dena ohi bezala doa. Gaztea haziz doa bai giza aldetik eta bai erlijio aldetik. «Haren anak gertakari guztiak gogoan hartu eta bere barnean hausnartzen zituen». Jainkoaren jokaeraz geroago eta gehiago konturatzen da. Hauxe da Mariaren fede-bizitza: bere eritziei uko egin eta Jainkoaren asmoetara egokitu al bait ondoen. Alde eder-rra egongo zen Mariak aurrez uste zuenetik orain ikusten duenera! Bide hau, distantzia hau zen Mariak fedez ibili behar izan zuena Jainkoa beronen izatean eta ekintzan bete-betean onartu ahal izateko.

Gogoeta hauek zehar Mariari begiratu diogu ebangelariak eskaintzen diguten argitan, Jainkoaren Ama dugu bera eta Espiritu Santuaren eraginez sortu zuen bere semea. Hauxe da miragarria; baina gainerako guztian haren bizitza apala eta distirarik gabea izan zen. Geroa zer izango zen jakin gabe, urratsez urrats aurrera egin zuen. Jainkoagan uste oso jarriarik, onartu egiten du Haregandik datorkion guztia. Bere baitan gogoetak egirik, Jaunaren bi-deak nolakoak diren ezagutuz doa.

Patxi Ibarria